

Sentitzen dut, Varvara anderea

ETENGABE sortzen ari dira han eta hemen piano-izar berriak. Seinale ona da, musika mailan mugimendua dagoela nabaritzen da eta talentu gazte bakoitzak ekarpen orijinalak egiten dizkie behin eta berriro entzuten ditugun obra klasikoei. Aldi honetan, Gasteizko Kontzertu Handien Zikloaren barruan, Varvara Nepomnyashchaya pianista errusiarra entzuteko aukera izan dugu, eta, egia esan, ez gaitu axolagabe utzi. Desberdina da, oso, harrigarria, bere jotzeko era, bere jarrera, dena. Erabat garbi ez dudana da hori guztia onerako ala txarrerako den.

Deigarria izan zen lehenengo momentutik bere izaera nerbioduna. Ez zuen urduritasunik adierazten taula gainean, ez zen hori, baina tik-ak zituen, eta, azken batean, deserosotasun puntu bat transmititzen zuen uneoro. Izaera nerbioso horrekin lotuta, arazoak zituen *tempoekin*. Azkartzeko joera nabaria du Nepomnyashchayak. Kostatu egiten zaio *tempoari* eusten, eta horrek orkestrarekin koordinatzeko arazoak ekarri zituen. Horrez gain, lehen esan bezala, entzuleen artean nolabaiteko antsietate sentsazioa sorrarazi zuen. Berezia, benetan.

Schumannen *Piano eta orkestrarako La minorreko Kontzertua* lan imaginatiboa da, rapsodia modukoa, eta Nepomnyashchayaren eskuetatik pasatuta, beste dimentsio bat hartu zuen. Ez du piano joleak soinu bereziki ederra. Esango nuke ez duela *cantabile* dotorea. Baina musikari azkarra denez, badaki horri buelta ematen, orijinaltasunez. Ez ditu pianistak goiko melodiak nabarmentzen, azpimelodiak baizik. Bere bertsioa entzuten duzunean, ez duzu ohikoa entzuten. Musikaren barruan dituen harmoniak azpimarratzen ditu, eta baxu boteretsuak egiten ditu. Gustatzen zait hori, asko.

Horrez gain, musikalitate fina du errusiarrak, eta horrexegatik *Intermezzo. Andantino grazioso* bigarren mugimendua ederra atera zen. Orkestrarekin egindako elkarrizketa dotore eta erromantikoa iritsi zitzaigun. Baina *Allegro Vivace* azkeneko denbora beste kontu bat izan zen. Deskontrolatu egin zuen *tempoa*, ez zituen modu garbiz adierazi ideia musikalak, eta, laburbilduz, ez zuen biribildu interpretazioa. Pena. Propina bat bota zuen: Chopinen *Preludio* bat, arraroa, berezia, aldi berean erakargarria.

Saioaren bigarren zatian, Vienako Irratiko Orkestra Sinfonikoak Johannes Brahmsen 2. *Sinfonia Re*



Kontzertu Handien Zikloa.
Vienako Irratiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Cornelius Meister.
Bakarlaria: Varvara Nepomnyashchaya (pianoa).
Egitaraua: Schumann eta Brahmsen obrak.
Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.
Data: apirilaren 17a.

maiorrean, op. 73 eskaini zuen. Boteretsu eta adoretua. Cornelius Meister zuzendari gazteak makila eta gorputz osoarekin zuzentzen zuen taldea, eta taldeki-deek zintzotasunez jarraitzen zituzten haren aginduak. Eskuzabala izan zen talde austriarra, bis dezentte bota baitzuen: Alberto Ginasteraren *Malambo*, Straussen polka bat eta Brahmsen dantza hungariar bat. Publikoa, txundituta. ■

Montserrat Auzmendi